

ELKARTEAK

Zerbitzu bat aurrera eramateko egin beharrezko kontaktuak dira elkarteak. Horregatik, zenbait aliantza egingo ditugu hainbat erakunde eta enpresekin.

berria

Hasteko, Zumarraga eta Urretxuko udaletxeekin hitz egin dugu, gure proiektuaren berri izan dezaten eta horrela diru laguntzekin lagunko digute. Horrez gain, El Diaro Vasco eta Berria egunkariekin harremanetan jarriko gara, haiek gure produktuaren iragarki bat jar dezaten. Hauek biak Euskal Herriko biztanleen artean irakurrienak direnez, lagungarria izango zaigu gure aplikazioaren publizitatea ahalik eta pertsona kantitate handienera iristeko.



Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzari ere gure proiektua azalduko diogu. Honek, sortzen diren enpresa berriei eskeintzen dizkieten maileguaz baliatuko gara, hasierako gastuak ordaintzeko. Hauek, gehienez 30.000€-ko jesapenak ematen dituzte, eta 5 urteko epea izango genuke hori bueltatzeko, hilero diru kantitate finko bat emanaz.

GARAPEN S.L.

Gure produktuak teknologiarekin zerikusia duenez, herriko GARAPEN informatika dendarekin bat egingo dugu, momenturen batean arazo teknologikoren bat izango bagenu, berarengana jo eta irtenbidea eman diezaion.

Gainera, gure proiektua aurrera eraman ahal izateko oso garrantzitsua izango da Ecoembes elkartearekin egingo dugun aliantza, izan ere, gure aplikazioan azalduko diren iragarkiak enpresa honengandik eskuratuko ditugu. Azken urteotan, Espainia mailan arrakasta handia izan duen enpresa handi bat da, eta, esparru honetan urte asko daramatzatenez, haien jakintza oso lagungarria izango zaigu, birziklatzearen eta klima aldaketaren munduaz geroz eta gehiago ikasteko, gure aplikazioaren aberastasuna handituz.



Bestalde, Greenpeace erakundearekin egingo dugun aliantza ere ezinbestekoa izango da, gure proiektua jende artean ezagunagoa egiteko. Erakunde aproposena iruditu zaigu, kanpai askorekin lan egiteaz gain, elkarte honek indarkeriarik gabeko ekintza zuzena erabiltzen duelako, arreta publikoa ingurumenaren arazo globaletara erakartzeko eta etorkizun berdea eta baketsua izan dezagun, konponbideak bilatzeko. Aipatu beharra dago, gaur egun Greenpeace Europako 55 herrialdeetan dagoela; horregatik, etorkizun batean mundu mailan zabaldu nahi izanez gero, errazagoa izango zaigu beraien laguntzaz jabetzea.



Lokalari dagokionez, UGGASA erakundearekin (Urola Garaiko Garapen Agentzia) kontaktuan jarriko gata. Enpresa honek lokalak alokatzen dizkiei enpresa berriei, hilean 30€ soilik ordainduz. Azpimarratzekoa da alokairu horretan Interneta, argindarra eta ura sartzen direla. Leku egokiena eta ekonomikoki eskuragarriena iruditu zaigu, bertan talde bilerak egiteko. Horrela, denon artean erabaki garrantzitsuak hartu ditzakegu, gure produktibitatea handituz.

Hortaz aparte, Kutxa bankuan kontu korrante bat sortuko dugu, gure produktuaren diru sarrera eta irteerak kontrolatu ahal izateko. Kutxa konfiantzazko bankuntzat dugu, horregatik uste dugu horrelako kontuak eramateko egokiena dela.



Diru sarrera batzuk lortu ahal izateko eta gure izena promozionatzeko, gure izenarekin birziklatutako plastikozko botilak egitea pentsatu dugu. Horretarako, Zuzen enpresarekin kontaktuan jarriko gara hauen diseinua eta ekoizpena gauzatzeko. Horrez gain, Zumaian dagoen Bask arropa dendarekin harremanetan jarriko gara, Zuzenekin sortutako botila horiek beraiek sal ditzaten. Enpresa honek helburutzat plastikozkoen erabilpena murriztea du, eta gu bat gatoz bere filosofiarekin.



Azkenik, Sasieta elkartearekin kontaktuan jarriko gara ikastoletan zehar gure promozioa egin dezan. Hau da, hurrei egiten dizkieten hitzaldiak egin eta gero, gure aplikazioari buruzko azalpen txiki bat emango diete.

